

MOJA BAT¹



NEURE ADISKIDE LAZPITAKO ERROSARI, PROFESETAN ZAN EGUNEAN
KANTETAKOTZAT JARRITAKO BERTSUAK.

Ordu onean mundura jayo
Ziñean krabeliñea,
Lurreko bullai iges egiñda
Bizi zarean lorea;
Nok leikekean zuk egin dozun
Ezkontza parebagea,
Zure Esposo dalako Dabid
Erregearen Semea.

Aiñ da galanta Printzipe ori
Arpegiz zuri gorria,
Dirudiala goiñeko eguzki
Beti barreka jagia;
Zu barriz zara, bere argitan
Loracho guri azia,
Agaitik berak ezarri deutsu
Esposatzako begia.

Berak egiñak dira goi urdiñ
Izarrez jantzitakuak,
Bere naiagaz apaintzen dira
Urtero pichiz kanpuak;
Badira bere millaka lorak
Ederrez aukerakuak,
Onenetan bat zu artu zaitu
Salomon Jaungoikozkuak.

¿Zer dira bada udako lora,
Mardo arro ta zoruak?
Izozcho batek baditu isten
Zimel igerrik gaisuak?
Errosa bere erreko eban
Bardiñ Abendu leitsuak,²
Beren berariz egiñ ezpaleu
Krabeliña zail zeruak.

(1) El Sr. Arrese y Beitia nos ha dirigido, á propósito de esta composición, una carta que dice lo siguiente:

«Neure adiskide kutun Arzác: onetsiko neuke guztiz asko, ipiñiko bazenduz zuzenduten dozun *Errebistan*, bialduten deutsudazan bertso orreik, direalako neure adiskide Lazpitako Errosari jarriak. Mundragoko Kontzeziñoko komentuan profesetan zan egunean *lokutorioan* kantetako usteagaz: eta egun au jausirik aurtengo Urtaillaren 3-an noz alderdi onetan aurkitu giñean edurte andi baten azpian, iñora urten ezinda, bide guztiak zarratu zirealako; ezin izan nintzan joan, eta alan Mundragora joa nazan beste egun baten kantau deutsadazalako erregututen deutsut baderichazu argitaratu daizuzala, emonik lenaz eskerrik agirienak»

(2) Leia=izotza.

¡O! kriatura zoragarria,
 ¿Nogaz zaikedaz bardindu?
 ¡Ai! albaneizu diamantezko
 Koroi argi bat atondu!
 Erregina andi batek legeche
 Burua daizun apaindu,
 Errege danen Errege bera
 Gaur dozulako zeugandu.

Bene-benetan pozgarria da
 Errosa gaurko eguna,
 Kristogaz egiñ zuk dozulako
 Batzar ta alkartasuna,
 Gorde egiozu leyaltadean
 Osoro zintzotasuna,
 Cero beragaz gozau dagizun
 Goyan betikotasuna.

Izan zakioz niretzat bere
 Bitarteko bat altsua,
 Mesedegiñan dalako zure
 Jesus guztizko prestua,

Eskatu-yozu euki dayala
 Nigaz errukimentua,
 Salbaziñoko bidean emon
 Ez daidan oker pausua.

Igo beki krabeliñ-usaiñ
 Gozozko zure lurruna,
 Intzentso keia doakon legez
 Bera dagoan tronura,
 Edanda andik jatsiten jatzun
 Inontzen lanbro lliguna,
 Izango zara uda ta negu
 Jesusen lora kutuna.

Izan zakioz leun chukun-kutun
 Ez otz motz eta mingotza
 Euki egizu goyan zein beian
 Jesusegaz bat biotza.
 Taborren legez bazara izaten
 Golgotan bere esposa
 Egunen baten deitu leikezu
 Eleiñak Santa Errosa.



Azkenean edo echera biurtzekoan kantetako bertsuak

Banoa orain Errosa,
 Banoa echera,
 Ez kusteko iñoz
 Benturaz atzera,
 Ez dago zer sentidu
 Ori gora bera,
 Baldin batzen bagara
 Sion ederrera.

Bizi zaitetz bakean,
 Leku zarratuan,
 Gorputzagaz lurtean
 Biotzaz zeruan,
 Nik bizi bearko dot
 Pelean kanpuan,
 Arerioen kontra
 Ill arte munduan.

Bide bat zuk daukazu
 Nondik joan garbi,
 Ni barriz illunpetan
 Emen nabill sarri,
 ¡Zenbat bider uretan
 Ichasoan larri!
 Izango ete nazan
 Balien janari.

Basamortuetatik
 Nabill geyenetan,
 Lañoagaz galduta
 Bide labanetan;
 Eta gaur arte nik jo
 Dodan errietan,
 Negarra baño ez dot
 Billatu euretan.

Nozbait topauko al dot
 Lur aukerakua,
 Erri bat dariona
 Dana kontentua;
 Billatzen dodanean
 Iturri aiñ dontsua,
 Jarriko al jat arimau
 Betiko asetua.

Baña ¿zer da iturri bat?
 ¿Zer da errekea?
 ¿zer ichasoa bera
 Ur danen jabea?
 ¿Zeiñ, balitz dana ezti.
 Naiz balitz esnea,
 Ez baleuskit aseko
 Nire arimea?

Jaungoikoa billatu
 Dagian orduan,
 Arimaut jarriko jat
 Kontentu osuan,
 Au zelan ezin neyan
 Baña emen munduan,
 Billatu bearko dot
 Goiko erreñuan.

Goazen bada guztiok
 Goiko erreñura,
 Bertan bera ichita
 Zizpuruén lurra,
 Ill bear izan arren
 Ez deutsa ardura,
 Eriotzatic zuzen
 Bagoaz zerura.

Baña kontuz irago
 Zubi aiñ bedarra,
 Jausi bago azpiko
 Suzko erre kara;
 Ordu estu artatik
 Ondo urtenik bada,
 Siongo lur santuan
 Sartuko al gara.

Bizi gaitazan anche
 Kontentuz pozarren,
 Ez emen legez kejaz
 Otzta beroaren;
 Mayatz gozo loratsu
 Alegere baten,
 Jaunaren arpegia
 Beti ikusten. Amen.

FELIPE ARRESE ETA BEITIA.